

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 17koa, EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren aldaketei buruzkoa, 2020. urteari dagokion Garraio eta Mugikortasun Efizientearen Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntzen Programaren oinarri arautzaileak deitu, onartu eta argitaratzen dituena (EHAA, 2020/01/29).

Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak, testuingurutik argi ondorioztatzen ez badira, eta haren zuzenketak edukian edo dokumentuaren zentzuan itxurazko zein benetako aldaketaren bat ekar badezake, maila bereko xedapen baten bidez zuzendu edo konponduko dira.

Horrelako hutsak eta omisioak aurkitu dira 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenean, EEEko zuzendari nagusiarena, 2020. urteari dagokion Garraio eta Mugikortasun Efizientearen Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntzen Programaren oinarri arautzaileak deitu, onartu eta argitaratzen dituena, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian, 19 zenbakian, 2020ko urtarrilaren 29an, argitaratua, eta, beraz, aldaketa hau egiten da.

2020/430 (10/36) orrialdean, aipatutako Laguntza Programaren oinarriez ari denean, 4. puntuan, Diruz lagunduko diren jarduerak eta zenbatekoak, 2 neurriko atalean, Karga elektrikoa eta erregai alternatiboak, garaje kolektiboetan enbor-instalazioak izeneko azpiatalean, Linea 2.1,

Honakoa dioenean:

"Linea honetako jardueri dagokienez, dirulaguntza kostu lagungarriaren %100 izango da, eta diruz lagunduko den enbor-instalazioaren dimentsionamenduko aparkaleku-toki bakoitzeko gehieneko diru laguntzaren zenbatekoa 200 eurokoa izango da. Linea honetan BEZa diruz lagunduko den gastutzat hartuko da, baldin eta eskatzailearen izaera juridikoa dela eta, berreskuratzeko edo berdintzeko aukerarik badago."

Honako hau esan behar du:

"Linea honetako jardueri dagokienez, dirulaguntza kostu lagungarriaren %100 izango da, eta diruz lagunduko den enbor-instalazioaren dimentsionamenduko aparkaleku-toki bakoitzeko gehieneko diru laguntzaren zenbatekoa 200 eurokoa izango da. Linea honetan BEZa diruz lagunduko den gastutzat hartuko da, baldin eta eskatzailearen izaera juridikoa dela eta, berreskuratzeko edo berdintzeko aukerarik badago. Dirulaguntza hau soilik eska daiteke Linea 2.2ko beste dirulaguntza batekin lotzen denean, lbigailu elektrikoak kargatzeko puntuak, garajeetan bertan kargatzeko puntu bat instalatze aldera. Jarduera bi horiek amaitu eta gero baino ez da ordainduko dirulaguntza. Lotutako karga-puntuak enbor-instalazioa erabili beharko du."

2020/430 (25/36) orrialdean, aipatutako Laguntza Programaren oinarriez ari denean, 8. puntuan, Dirulaguntza eskaera, Dokumentazio teknikoa atala, 2 neurrian, Karga elektrikoa eta erregai alternatiboak.

Honakoa dioenean:

"Kargatzeko instalazioaren ezaugarri teknikoak (konektore mota, potentzia)."

Honako hau esan behar du:

"Kargatzeko instalazioaren ezaugarri teknikoak (konektore mota, potentzia). Eskaera banako instalazio batekin batera datorrela deklarazioaren berri eman behar da, Linea 2.2ko lbigailu elektrikoak kargatzeko puntuak izenekoaren arabera."

2020/430 (31/36) orrialdean, aipatutako Laguntza Programaren oinarriez ari denean, 10. puntuan, Dirulaguntzak ordaintzea, Dokumentazio teknikoa atala, 2 neurrian, Karga elektrikoa eta erregai alternatiboak.

Honakoa dioenean:

"Garajeen kargagunea lotuta duen ibilgailu elektriko bat dagoela egiaztatzen duen dokumentua (adibidez, ibilgailuaren zirkulazio-baimena)."

Honako hau esan behar du:

"Garajeen kargagunea lotuta duen ibilgailu elektriko bat dagoela egiaztatzen duen dokumentua (adibidez, ibilgailuaren zirkulazio-baimena) eta kargatzeko zerbitzua hornitzen duen enpresarekin egindako elektrizitatez hornitzeko kontratuaren kopia."



Bilbon, 2020ko otsailaren 17an

Zuzendari nagusia,

Iñigo Ansola Kareaga